

Bilduk Bilboko Eskola-Maparen gaurkotzea eskatu du

Bilboko Udaleko Bildu Udal Taldeak hurrengo udalbatzarrean hiriaren Eskola-Maparen gaurkotzea eskatuko diola Eusko Jaurlaritzari.

Txema Azkuenaga koalizioaren bozeramaileak, eskola-mapak gaur egungo Bilboko errealitateari erantzuten ez diola salatu du, ez geografikoki ezta sozialki ere.

Azkuenagak, bereak egin ditu Eskola-komunitateak egindako salaketak. Bai matrikulazio eskakizunei erantzuteko leku nahikorik ez dagoela esanez eta baita eskola batzuk gainezka daudela esanez ere. Miribillako kasua aipatu du zeinean iragan kurtsuan 100 ume plazarik gabe gelditu ziren.

Eskola-Maparen berriztatzeak “hizkuntz ereduen amaiera ekarri behar du” Azkuenagaren ustez, ‘A ereduak ez baitu bermatzen euskara ikasteko eskubidea, honez gain kolektibo batzuei jendarte elebidun eta multikulturalean integratzea oztopatzen du.

Azkuenagak eman dituen datuen arabera, Bilbon eskola publikoetan oraindik 30 lerro daude A ereduarekin. Otxarkoagako kasuan adibidez A ereduak duten 6 lerro aurki daitezke. Azkuenagak Celaá Sailburua gonbidatu du Iniciativa Gitana Elkartearekin hizkuntz-ereduei buruz hitz egiteko, elkarte honen duen irakurketa ezagutu dezan.

Azkenik, guraso guztiak animatu ditu bere seme-alabak D ereduan matrikulatzeko, euskara ikasteko berme bakarra hau izanik.